

2024KO MAIATZAREN 6KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren 6an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Oramazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko apirilaren 22an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 32 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA LAU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA euro ETA HIRUROGEITA ZORTZI zentimokoa (44.771,68 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 148,50 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Eman daitekeenaren % 99 da.

IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hau hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 260 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

V.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkao Txiki musika eskolari.-

2024. urteko martxoan I. Triki Jaialdia antolatzeagatik, 1.500 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.